



EBAZPENA, 2023ko uztailaren 18koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetarako zenbait deialditan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena (hautaketa-prozedurak 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren)

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 28ko EHAA), hautaketa-prozesuetarako zenbait deialdi egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere.

Eskabideak betetzeko epea amaitu ondoren, aipatutako deialdiak 4. oinarrian xedatutakoaren arabera, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetarako zenbait deialditan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda (hautaketa-prozedurak 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren).

2. artikulua.– Ebazpen hau, bai eta behin-behineko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko eta ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda»
- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/> («EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko eta ohiko lehiaketa-oposizioa») – «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».

3. artikulua.– Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztenik. Beraz, onartutako pertsonen prozedura honetan parte hartzetik eratorritako eskubideak izateko, 12. oinarrian jasotako dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta, ondorioz, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta azterketa medikoa gainditu beharko da.

4. artikulua.– Ebazpen honen aurka, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendari dagokionez, izangaien erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute hamar egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, hala badagokio, zuzendu ahal izango da baztertzea eragin duen akatsa. Halaber, beren datu pertsonalak jasotzean akatsak atzeman dituztenek epe horretan bertan adierazi ahal izango dute.

Erreklamazioak Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta interneteko helbide hauetan aurkeztuko dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko eta ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautaketa-



prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda», «Erreklamazioak» eta horiek aurkezteko jarraibideak betetzea.

- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> («EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko eta ohiko lehiaketa-oposizioa») – «Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda», aurreko ataleko bideari jarraituz.

Interesdunak ez badu adierazitako epean zuzentzen baztertzeko arrazoia izan den akatsa, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 18a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
BLANCA GUERRERO OCEJO